

**2017ko URTARRILAREN 19ko UDALBATZARRA**  
**PLENO DE 19 DE ENERO DE 2017**

**BERTARATUAK / ASISTEN:**

**ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:**

**M<sup>a</sup> ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, AITOR IANTZI GOIENETXE, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**  
**GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI.**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**  
**Eguna: 2017-01-19**  
**Ordua: 19:30**  
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

**Lugar: Casa Consistorial de BERA**  
**Día: 19-01-2017**  
**Hora: 19:30**  
**Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.**

**TRATATZEKO GAIK:**

**ASUNTOS A TRATAR:**

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-**

**2016.eko abenduaren 15ean egindako bilerraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

**Vista el acta de la sesión celebrada el día 15 de diciembre de 2016, por unanimidad SE A-PRUEBA.**

**2.- AITOR IANTZI GOIENETXE: ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.**

**2.- TOMA POSESIÓN CARGO CONCEJAL: AITOR IANTZI GOIENETXE.**

**Jose Manuel Portu Berasateguik, EH Bildu hauteskunde koalizioko zinegotziak, zinegotzi-karguaren dimisioa aurkeztu ondoren eta kontuan hartuz Ines Rosario Machiarena Aldalurrek, Adela Arlegi Goienetxek**

**Tras la dimisión presentada por José Manuel Portu Berasategui, concejal de la coalición electoral EH Bildu y las renunciaciones anticipadas de Inés Rosario Machiarena Aldalur, Adela Arlegi Goienetxe y Patxi Castillo Graciarena**

eta Patxi Castillo Graciarenak aurrez karguari uko egin diotela, AITOR IANTZI GOIENETXEK, zinegotzi kargua hartu egin behar du, aipatu koalizio honen zerrendako hurrengoa baita.

**Kontuan hartuz, interesatuak nahiz zinegotzi hautatua egiaztatzen den kredentziala nahiz balizko bateraezintasun kausak eta ondasun aitorenak aurkeztu dituela.**

**Hauteskunde Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikuluari jarraikiz, Alkateak apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak xedatutako galdera zinegotzi hautatuari egin dio:**

**“Zure kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten edo hitzematzen duzu zinegotzi izateak ezartzen dizkizun betebeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzoki beteko dituzula, eta Konstituzioa Estatuaren arau nagusi bezala zaindu eta zainaraziko duzula?”**

**AITOR IANTZI GOIENETXEK, legeak hala behartuta, hitzematzen duela erantzun dio, eta horrela zinegotzi-kargua hartu du.**

### **3.- LAN BATZORDEAK OSATZEKO ALDATZEA.**

*Aho batez, honako erabakia hartu dute:*

**Zinegotzi berriak kargua hartu ondoren, Udal Lan Batzordeei atxiki behar da eta beste erakundeetan Udal ordezkari izendatu ere.**

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

- 1) Aitor Iantzi Goienetxe Hirigintza Batzordetako partaide izendatzea Batzordeko burua izanen delarik.**

siguientes en la lista de dicha coalición, procede la toma de posesión de AITOR IANTZI GOIENETXE, por ser el siguiente en la lista de la citada coalición.

Teniendo en cuenta que el interesado ha presentado la credencial que le acredita como concejal electo así como las declaraciones de bienes patrimoniales y posibles causas de incompatibilidad.

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica Electoral General, el Alcalde le hace la pregunta que señala el Real Decreto 707/1979 de 5 de abril:

“Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal con lealtad al Rey, y guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado?”.

AITOR IANTZI GOIENETXE contesta que, por imperativo legal, promete y así toma posesión del cargo.

### **3.- MODIFICACIÓN COMPOSICIÓN DE LAS COMISIONES DE TRABAJO.**

*Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Tras la toma de posesión del nuevo concejal debe adscribirse éste a las Comisiones de trabajo municipales y como representante del Ayuntamiento en otros organismos.

Por ello, SE ACUERDA:

- 1) Nombrar a Aitor Iantzi Goienetxe miembro de la Comisión de Urbanismo, siendo responsable de la misma.

2) Aldi berean, Bera eta Lesakako uraren goi hornidurako konponbide bateratua gauzatzeko borondatezko udal elkar-tearen Koordinazio Batzordean Mikel Lertxundi Korta zinegotzia Udal ordezkari izendatzea.

2) Al mismo tiempo, designar a Mikel Lertxundi Korta como representante del Ayuntamiento en la Comisión de Coordinación de la Asociación voluntaria de municipios para la solución común Bera-Lesaka en el abastecimiento de agua en alta.

#### 4.- 2017ko BALORAZIO PONENTZIA ERREBISATZEA.

#### 4.- REVISIÓN PONENCIA DE VALORACIÓN 2017

*Alkateak zera azaldu du:*

*Joan den urtean pisuak eta etxeen arteko konparaketa egiteko balorazio batzuk egin ziren eta Ibardingo baloreak merkatuan baino baxuagoak daudela ikusirik, aurten, Balorazio Ponentzia egiteko aukera ikusi dute.*

*El Alcalde explica que el año pasado se hicieron diversas valoraciones para comparar los valores de pisos y casas y, por otro lado, se ha tenido conocimiento de que los valores de Ibardin están por debajo de los valores de mercado. Por ello, se ha contemplado la posibilidad de hacer una revisión de la Ponencia de Valoración este año.*

*Idazkariak prozedura azaldu du eta, horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

*La Secretaria explica el procedimiento, tras lo cual, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Kontuan hartuz, alde batetik, Udal Plan Orokorrean lurzorua erabiltzeko edo aprobetxatzeko baldintzak aldatu direla eta bestetik, Ponentziaren balore batzuk ez daudela eguneratuak.**

Teniendo en cuenta, por un lado, que se han modificado diversas condiciones de uso o aprovechamiento del suelo del Plan General Municipal y por otro, que diversos valores de la Ponencia están desactualizados.

**Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroari buruzko 12/2006 Foru Legearen 35. eta 36. artikuluei jarraikiz eta baita ere hauekin bat datozen Foru Lege hau garatzen duen Erregelamenduaren artikulua.**

De conformidad con los artículo 35 y 36 de la Ley Foral 12/2006 del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra y concordantes del Reglamento de desarrollo de dicha Ley Foral.

#### **ERABAKI DUTE:**

#### **SE ACUERDA:**

**1) 2017ko Balorazio Ponentziaren proiektua errebisatzeko prozedurari hasiera ematea.**

1) Iniciar el procedimiento de revisión de la Ponencia de Valoración del año 2017.

**2) Horretarako, behar den kontratazioa egitea.**

2) Para ello, llevar a cabo la contratación pertinente.

3) Nafarroako Gobernuaren Lurralde Aberastasuaren Zerbitzura bidaltzea.

3) Remitir este acuerdo al Servicio de Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra.

**5.- BERAKO UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA XEHAKATUA, BIZITEGI LUR-ZORUAN ZEHAZTUTAKO ERABILERAK (HIRIGINTZA ARAUTEGIAREN 18. ART) ARAUTZEKOA: HASIERA BATEZ ONESTEA.**

5.- MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DE LA REGULACIÓN DE USOS DETALLADOS EN SUELO RESIDENCIAL (ART. 18 NORMATIVA URBANÍSTICA) DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL DE BERA: APROBACIÓN INICIAL.

*Idazkariak prozedura azaldu eta gero, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabaki hau hartu dute:*

*La Secretaria explica el procedimiento y, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Berako Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatuaren espedientea, bizitegi lurzoruan zehaztutako erabilera (Hirigintza arautegiaren 18. art.) arautzekoa, Udalak sustatua.**

Visto expediente de modificación pormenorizada de la regulación de usos detallados en suelo residencial (art. 18 Normativa urbanística) del Plan General Municipal de Bera, promovido por el Ayuntamiento.

**Dokumentazioa: Planaren Aldaketa Xehakatuaren proiektua, ----- abokatuak egina, 2016ko abenduaren 6koa.**

Documentación: Proyecto de modificación pormenorizada del plan, redactado por el abogado -----, de fecha 6 de diciembre de 2016.

**Ikusirik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74.2 artikuluari jarraikiz Nasuvinsak eginiko txostena, 2016ko abenduaren 23koa.**

Visto informe de Nasuvinsa de fecha 23 de diciembre de 2016, emitido de conformidad con el artículo 74.2 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

**Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak 2017ko urtarrilaren 12an egindako txostena.**

Visto informe de Secretaría de 12 de enero de 2017 emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local.

**Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79. 3 eta 74 artikuluekin bat etorritik.**

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.3) y 74 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

**Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:**

Con el quórum de la mayoría absoluta, legalmente exigido, SE ACUERDA:

**1) Lehen aipatu Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatu, bizitegi lurzoruan**

1) Aprobar inicialmente la modificación pormenorizada de la regulación de usos deta-

zehaztutako erabilerak (Hirigintza arautegiaren 18. art) arautzekoa, Udalak sustatua, hasiera batez onestea.

2) Aipatu aldaketa hilabete bateko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarrietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.

3) Herriaren hiri-gune guztietan obra baimenak ematea eten gelditu direla seinaleztatzea.

**6.- NAFARROAKO ONURA PUBLIKOKO MENDIEN KATALOGOKO 638 ETA 639 ZBK.KO HERRI MENDIETAN, “KOMIZIARRA” PARAJEAN OHIAN-APROBETXAMENDUAREN ENKANTEA (PEFC ohian ziurtagiria).**

*Idazkariak espedientea azaldu eta gero honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, Nafarroako onura publikoko mendien katalogoan 638. eta 639. zenbakiekin katalogatutako mendietan, “Komiziarra” parajeko oihan-aprobetxamenduaren espedientea (PEFC ohian ziurtagiria):**

llados en suelo residencial (art. 18 Normativa urbanística) del Plan General Municipal de Bera, promovida por el Ayuntamiento, antes referenciada.

2) Someter dicha modificación a exposición pública durante el plazo de 1 mes, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral de Navarra.

3) Señalar que el otorgamiento de licencias de obras queda suspendido en todas las áreas urbanas del municipio.

**6.- SUBASTA FORESTAL APROVECHAMIENTO FORESTAL EN MONTES COMUNALES Nº 638 Y 639 DEL CATALOGO DE MONTES DE UTILIDAD PUBLICA DE NAVARRA, PARAJE DE “KOMIZIARRA” (certificación forestal PEFC).**

*Tras explicar la Secretaria el expediente, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto expediente de aprovechamiento forestal en los montes comunales nº 638 y 639 del catálogo de montes de utilidad pública de Navarra, paraje “Komiziarra” (certificación forestal PEFC):

Plan 2016 Bera	Lote Unico		
	Pino insignis	Roble americano	Total
Paraje	Komiziarra		
Especie	Pino insignis	Roble americano	
Nº pies	3.087	199	
Localización	20be	S0c y 25ah	
Tipo de corta	Corta a hecho		
Superficie (Ha)	20	1,2	21,20
m3 de madera	6.066	290	6.356
€/m3 madera	27 €/m3	35€/m3	
M3 de tronquillo	623	109	732

€/m3 tronquillo	10€/m3	12€/m3	
<b>m3 total</b>	<b>6.689</b>	<b>399</b>	<b>7.088</b>
<b>€ Total</b>	<b>170.021,16</b>	<b>11.460,12</b>	<b>181.481,28</b>

**Mendietako Zerbitzuko Zuzendariaren 403/2016, abuztuaren 30eko ebazpenak Berako Udalaren herri-lurraren mendiari dagokion 2016ko Hobekuntza eta Aprobetxamendu Plana onartu eta, horren ondorioz, aipatutako oihan-aprobetxamendua baimendu du.**

**Horregatik, ERABAKI DUTE:**

**1) Oihan-aprobetxamendu honen enkantea arautu behar duen baldintza-plegua onestea.**

**2) Aipatutako oihan-aprobetxamendua enkante irekian egitea.**

**3) Enkante honen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Foru Komunitatean argitaratzen den egunkari batean edo gehiagotan, Udal Taulan eta Nafarroako Kontratazio Atarian iragartzea.**

**4) Enkantea hutsa gelditu ezker %10 eta %20 merkeago ateratzea, bigarren eta hirugarren enkantean, hurrenez hurren.**

**7.- BAZTANGO AROZTEGIAKO URBANIZAZIOARI BURUZKO MOZIOA.**

*Alkateak mozioaren testua irakurri du.*

*Ondotik, honako adierazpenak egin dira:*

*Jose A. Oyarzabal:*

*Bera holako proiektuak egiteko aldekoa da enplegua, lan eta turismoa dakartzatelako.*

*Juan Losa:*

*Bat dator Jose A. Oyarzabalek errandakoa-ekin.*

*Arantxa Zubieta:*

*Ikusi behar da nola ukitzen dio herriari.*

Por Resolución 403/2016, de 30 de agosto, del Director del Servicio de Montes se aprueba el Plan Anual de Aprovechamientos y Mejoras para 2016, correspondiente al monte comunal de Bera y, en consecuencia, se autoriza el aprovechamiento forestal antes reseñado.

Por ello, SE ACUERDA:

1) Aprobar el pliego de condiciones económico-administrativas que regirá la subasta de estos lotes.

2) Sacar a pública subasta la venta de dicho lote forestal.

3) Publicar anuncio de esta subasta en el Boletín Oficial de Navarra, en uno o más diarios de los que se publican en la Comunidad Foral, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en el Portal de Contratación de Navarra.

4) Si quedara desierta la subasta sacarlo con el 10% y el 20% de rebaja, en segunda y tercera subasta, respectivamente.

**7.- MOCIÓN SOBRE LA URBANIZACIÓN AROZTEGIA DE BAZTAN.**

*El Alcalde lee el texto de la moción.*

*Después, se realizan las siguiente intervenciones:*

*José A. Oyarzabal:*

*El está a favor de que se hagan este tipo de proyectos porque traen empleo, trabajo y turismo.*

*Juan Losa, está de acuerdo con lo manifestado por José A. Oyarzabal.*

*Arantxa Zubieta:*

*Hay que tener en cuenta como le afecta al*

**Alkatea:**

**Ados egoten ahal da edo ez planarekin baino beste gauza da izapidetzeko modua, bai Baztango Udala bai Lekaroz herria aurka agertu dira eta, horregatik, PSIS izenekoaren bidez Nafarroako Gobernuak tramitatu egin du.**

**Mozioak diona da herriak erabakitzeko esku-bidea duela.**

**Aitor Iantzi:**

**Desberdindu behar da golf zelaia eta hotela, eta bestetik, hainbeste etxebizitza.**

**Jose A. Oyarzabal:**

**Ados dago planarekin baino ez inposizioarekin.**

**Horren ondoren, bozketa egin dute, honako emaitza izanik:**

**Aldeko botoak: 9 (EH Bildu 6, Herrirako 3)**

**Aurkako botoak: 1 (UPN).**

**Beraz, mozioa onartu dute eta hauxe da testoa:**

**Palacio de Arozteguia S.L.k Baztango Lekarozko herrian 228 etxebizitzako urbanizazioa, hotela eta golfa egin nahi ditu. 2016ko ekainaren 5ean Baztango Batzar Nagusiak deituta herri-galdeketa egin zen eta herritarrek proiektuari EZ erran zioten (I eranskinean galdeketako emaitzak heldu dira).**

**Herrien etorkizuna baldintzatuko duten proiektuei buruz herritarrek beren iritzia agertzeko eskubidea dute eta administrazio publikoak herritarren errana errespetatzeko betebeharra. Ildo horretan:**

**Gauzak horrela BERAko udalak herrien etorkizuna baldintzatuko duten proiektuei**

**pueblo.**

**El Alcalde:**

**Se puede estar de acuerdo o no con el plan pero otra cosa es la forma de tramitarlo, tanto el Ayuntamiento como el pueblo de Lekaroz están en contra y, por eso, el Gobierno de Navarra lo ha tramitado como PSIS.**

**Lo que se trata en la moción es el derecho a decidir.**

**Aitor Iantzi:**

**Hay que distinguir entre el campo de futbol y el hotel y tantas viviendas.**

**José A. Oyarzabal:**

**Está de acuerdo con el plan pero no con la imposición.**

**Tras las intervenciones, se lleva a cabo la votación:**

**Votos a favor : 9 (6 EH Bildu, 3 Herrirako)**

**Votos en contra: 1 (UPN).**

**Por lo que se aprueba la moción, siendo el texto el siguiente:**

Palacio de Arozteguia S.L. quiere promover una urbanización de 228 viviendas, un hotel y campo de golf en Lekaroz-Baztan. El 5 de junio de 2016 se llevó a cabo una consulta popular organizada por la Junta General del Valle de Baztan y los y las Baztandarras dijeron NO al proyecto (se muestran los resultados en el anexo I).

La ciudadanía tiene derecho a opinar y decidir sobre los proyectos que condicionarán el futuro de sus pueblos y las administraciones públicas tienen el deber de respetar estas decisiones. En este marco:

Así las cosas, el Ayuntamiento de BERA reivindica el derecho a decidir de la ciudadanía

**buruz herritarrek erabakitzeke duten eskubidea aldarrikatzen du eta, horregatik, Baztango Batzar Nagusiak antolatutako galdeketa baliokidea aintzat hartzen du. Hori horrela BERAko udalak Nafarroako Gobernuari baztandarrek galdeketa errandakoa betetzeko eskatzen dio.**

**Horretarako, BERAko udalak mozio honi buruzko erabakia Nafarroako Gobernuari jakinaraziko dio.**

## **8.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

**1) Bandoak: B32/2016.**

**2) Ebazpenak: 2016ko abenduaren 12ko 241. ebazpenetik 2016ko abenduaren 31ko 251.era arte eta 2017ko urtarrilaren 11ko 1.koa.**

*Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hau tratatu dute:*

## **9.- BLANCA MARQUES ANDRES BURLATAKO BIZILAGUNAREN ERAILKETA GAITZESTEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: BURLATAKO UDALA.**

*Alkateak Burlatako Udalak bidalitako adierazpen instituzionalaren testua irakurri du eta honen ondotik, aho batez, onartu dute, honako testua izanik:*

**Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Burlatako Udalaren izenean, Blanca Marqués Andrés aipatu herriko bizilagu-**

en torno a los proyectos que condicionarán el futuro de su pueblo y por ello, respeta el resultado de la consulta popular organizada por la Junta General de Valle de Baztan. Por ello, el Ayuntamiento de BERA pide al Gobierno de Navarra que respete y cumpla la decisión tomada por los y las baztandarras a través de la consulta popular.

Para ello, el Ayuntamiento de BERA hará llegar el acuerdo tomado sobre esta moción al Gobierno de Navarra.

## **8.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: B32/2016.

2) Resoluciones: De la resolución nº 241 de 12 de diciembre de 2016 a la nº 251 de 31 de diciembre de 2016 y la nº 1 de 11 de enero de 2017.

*Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:*

## **9.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE CONDENA POR EL ASESINATO DE LA VECINA DE BURLADA BLANCA MARQUES ANDRES: AYUNTAMIENTO DE BURLADA.**

*El Alcalde lee el texto de la declaración institucional remitida por el Ayuntamiento de Burlada, tras lo cual, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

La Federación Navarra de Municipios y Concejales ha remitido, en nombre del Ayuntamiento de Burlada, la declaración institucional



**naren erailketa gaitzesteko Adierazpen In-  
stituzionala, Udal honek onetsia, bidali du.**

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

**1) Burlatako Udalak onartutako Adieraz-  
pen Instituzionalari, Blanca Marqués An-  
drés aipatu herriko bizilagunaren erailketa  
gaitzestekoari, atxikitzea. Ondoan testu  
osorik idatziko da:**

**Berako Udalak Blanca Marqués Burlatako  
bizilagunaren erailketa aitortua gaitzesten  
du.**

**Halaber, hain mingarriak diren une haue-  
tan, bere familia eta lagunekin elkartasuna  
adierazi nahi dugu.**

**Hilketa honek berresten du indarkeria ma-  
txista gaitza dela, giza eskubideen eta ema-  
kumeen duintasunaren aurkako atentatua  
badela ere. Gizartean berdintasunaren bi-  
dean ematen ari diren aurrerapausoak ozto-  
patzen ditu.**

**Atzo jasan izan behar genuen berriak  
baieztatzen du denon elkarlana beharrez-  
koa dela, administrazio eta gizarte mailan,  
arlo judizialean eta, batez ere, Hezkuntza  
mailan, lan eraginkorra egiten gaitza beti-  
rako desagerrarazteko.**

**Horregatik guztiagatik, Udalaren udalba-  
tzak ebazten du:**

**1º. Blanca Marqués Andrés Burlatako  
bizilagunaren erailketa basatia gaitzestea.**

**2º. Bere familiari eta lagunei nahiz  
Burlatako Udalari gure elkartasuna eta  
maitasuna adieraztea eta instituzioak eman  
dezakeen laguntza guztia haien eskura**

de condena por el asesinato de la vecina del  
citado municipio Blanca Marqués Andrés  
aprobada por dicho Ayuntamiento.

**SE ACUERDA:**

1) Adherirse a la declaración institucional de  
condena por el asesinato de la vecina de  
Burlada Blanca Marqués Andrés aprobada por  
el Ayuntamiento Burlada, cuyo texto se  
transcribe a continuación:

El Ayuntamiento de Bera condena el brutal  
asesinato confesado de la vecina de Burlada  
Blanca Marqués.

Así mismo, manifestamos nuestra solidaridad  
con sus familiares y amistades en estos mo-  
mentos tan tremendamente dolorosos.

Este crimen nos reafirma en la consideración  
de la violencia machista como una lacra, un  
atentado contra los derechos humanos y la  
dignidad de las mujeres, que impide a esta  
sociedad continuar avanzando en la senda de la  
igualdad.

Noticias como la que ayer sufrimos nos  
reafirman en la necesidad de trabajar de forma  
conjunta, decidida y con la máxima unidad,  
desde todos los ámbitos administrativos,  
judiciales y sociales, y particularmente desde  
la Educación, adoptando un papel activo para  
erradicar esta lacra definitivamente.

Por todo ello este Ayuntamiento en pleno  
acuerda:

1º. Condenar el brutal asesinato de la vecina de  
Burlada Blanca Marqués Andrés.

2º. Manifestar nuestra solidaridad y cariño a  
sus familiares y amistades y al Ayuntamiento  
de Burlada, poniendo a su disposición toda la  
ayuda que como institución podamos pres-

**jartzea.**

**3º. Gure gizartean sortzen diren indarkeria matxistaren edozein agerpenaren aurrean gaitzespena berriro adieraztea.**

**4º. Indarkeria matxistaren biktimei laguntza emateko neurri instituzionalak sustatzea eta bultzatzea.**

**10.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

**Ez dira burutu.**

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:00etan.**

**O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE**  
Josu Iratzoki Agirre

tarles.

3º. Reiterar nuestro rechazo a cualquier manifestación de violencia machista que se produzca en nuestra sociedad.

4º. Fomentar y potenciar las medidas institucionales de apoyo a las víctimas de violencia machista.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:00 horas.

**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**  
Pilar Chueca Intxusta